



COVID-19

IZAERA ELEKTRONIKOKO APARTEKO NEURRIAK

OHIKO GALDERAK

Identifikazioa: BAK kodea eta pasahitz operatiboaren luzapena

Zer da BAK?

IZENPEk ematen duen doako autentifikazio bitarteko bat, online eskura daitekeena kontraste datu baten bitartez, interesduna inora bertaratu gabe.

Nork eskura dezake BAK bitartekoa?

Telefono mugikor bat eta posta elektronikoko kontu bat dituen edozein pertsona fisikok eskura dezake, betiere azken lau ekitaldietako batean errenta aitortpena Gipuzkoan aurkeztu badu. Aitorpen horren emaitza kontraste datu gisa erabiliko da.

IZENPEk ez du ematen BAK koderik ez pertsona juridikoentzat ez entitateentzat.

Zer da kontraste datua eta nola lortzen da?

Kontraste datua interesdunak ezagutzen duen datu bat da, haren identitatea egiaztatzeko erabili ohi diren betiko moduak ordeztu dituen. Azken 4 urteetan Gipuzkoan aurkeztutako errenta aitortpenetako baten zenbatekoa, izan ordaintzekoa izan itzultzekoa, aukeratu da kontraste datu gisa.

- Nola eskuratzen da datu hori?:
 - Urte bakoitzeko jatorrizko aitortpenean:
 - Kontu korronteko mugimenduetan
 - Zerga informazioa eskatuz
 - 943 11 30 00 telefonoan
 - Ogasunaren web orrian, [Zerga informazioa](#) estekan.
- Ziurtagiria posta arruntez iritsiko da, jakinarazpenak jasotzeko adierazi den helbidean.

Nola tramitatzen da BAKa?

Oso modu errazean eta etxetik irten gabe. **BAKaren orrialdetik** abiatuta jarraibideetara iristen da eta bertatik tramitazioa hasten da.



Zertarako balio du BAKak?

BAK kodearen bitartez posible da **GIPUZKOATARIA** zerbitzuen atarian eta **ZERGABIDEA** plataforman eskaintzen diren izapide guztiak egitea.

Noiz arte egongo da indarrean BAKa?

Alarma egoeraren deklarazioak amaitu eta beste 15 egun naturaletan zehar egongo da indarrean. Dena den, epe hori aldatu ahal izango da alarma egoeraren neurriak pixkanaka kentzen diren heinean.

Arabian edo Bizkaian ateratako BAK Gipuzkoako Foru Aldundian erabil daiteke?

Bai, Araban eta Bizkaian lortutako BAKek orain Gipuzkoako Foru Aldundian aldi baterako gaitzen diren prestazio eta indarraldi berberak dituzte.

Zer gertatzen da pasahitz operatiboa baduzu eta iraungitzear badago?

2020ko martxoaren 14tik uztailaren 29ra bitartean, biak barne, iraungitzen diren pasahitzak uztailaren 29ra arte luzatuko dira automatikoki.



Zerga ordezkaritza

Zer da beharrezkoa ezohiko ordezkaritza bat egiteko?

Ordezkarria: sinadura elektronikoko bat edukitzea. Partikularrentzat BAK berria nahikoa den arren kontutan eduki behar da honen denbora-muga. Zerga-kudeaketako profesionalentzat, ordea, ez. Horiek sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatua edo aitortua behar dute.

Ordezkatua: Azken lau ekitaldietako batean auto-likidazioaren bat Gipuzkoan aurkeztu izana: PFEZaren auto-likidazioa, pertsona fisikoen kasuan; edo sozietateen gaineko zergaren auto-likidazioa, pertsona juridikoak. Azken 4 ekitaldietako batean ez bada auto-likidaziorik aurkeztu, itxaron beharko da, herritarren arretarako bulegoak ireki arte ordezkaritza arrunta emateko. Pertsona fisikoek errenta mekanizatuaren modalitatearen hasi arte ere itxaron ahal izango dute.

Nori eman dakioke ordezkaritza?

Ezohiko ordezkaritzarekin, identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat indarrean duen edozein pertsona izendatu daiteke ordezkari (ez da beharrezkoa pertsona hori ordezkari profesionala izatea).

Jarduera bat egiten duten pertsona fisikoek ba al dute ezohiko ordezkaritza bat baimentzerik?

Bai. Azken lau ekitaldietako batean PFEZaren autolikidazioa Gipuzkoan aurkeztu duen edozein pertsona fisikok eman dezake ezohiko ordezkaritza.

Entitateek ba al dute ezohiko ordezkaritza bat baimentzerik?

Bai, baldin eta sozietateen gaineko zergaren zergadunak badira eta Gipuzkoan zerga horren auto-likidazioa aurkeztu badute azken lau urteetan.

Zer egin behar da ezohiko zerga ordezkaritza hori baimentzeko?

Harremanetan jarri behar da ordezkari izendatu nahi den pertsonarekin, hura baita izapidea hasi behar duena, eta dagokion kontraste datua eman.



Zertarako balio du ezohiko ordezkari-tza?

- **Zerga informazioa** eskuratzeko
- Mota guztietako aitortpenak aurkezteko
- **Zergabidea** plataformara joateko eta haren funtzionalitate guztiak erabiltzeko
- **Ziurtagiriak** lortzeko
- **Zatikapenak** eskatzea

Ez du balio ez jakinarazpen elektronikoak atzitzeko ez Ikuskaritzako Zuzendariorde-tzaren aurrean jarduteko.

Noiz arte eskatu daiteke ezohiko ordezkari-tza?

2020ko uztailaren 29ra arte.

Noiz arte egongo da indarrean ezohiko ordezkari-tza?

2020ko uztailaren 29ra arte. Sistema honen bidez ematen diren ordezkari-tzek egun horretan galduko dute indarraldia.

Emandako ordezkari-tza mantendu nahi bada, beste ordezkari-tza bat izapidetu beharko da sistema arruntetik.



Zer egin ordezkari bat baimendu behar bada eta Gipuzkoan azken lau urteetan auto-likidaziorik aurkeztu ez bada?

Ohiko bideetatik jo behar du, kontuan izanik, gainera, ordezkariak BAK kodearekin identifikatuz balidatu ahal izango direla aldi baterako.

Entitateak entitateko ordezkariaren sinadura elektronikoko ziurtagiria erabili behar du (edo entitatearen ziurtagiri zaharra, indarrean badago). Entitateak ez badu ziurtagiri elektronikoko hori, egoera hauetako bat gerta daiteke:

1. Entitatearen legezko ordezkaria, ziurtagiri pertsona baduena (BAK/BAKQ/FMNT, txartela...): legezko ordezkariak inskribatu dezake, legezko ordezkariaren frogagiriak erantsi beharko ditu. Behin alta emanda, entitatearen izenean jardun dezake bere ziurtagiarekin, baita ordezkariak berriak baimendu ere.
2. Ahalordeduna edo 001L ereduak eskuratu ezin duten entitateak (ondasun erkidegoak nagusiki). Pauso hauek eman beharko dituzte:
 - a. Ordezkariak aplikaziotik lortutako 001 edo 001-P dokumentua deskargatu behar du, PDF formatuan.
 - b. Dokumentu hori ordezkariak balioztatu behar duenari bidali behar dio.
 - c. Azken horrek 001 edo 001-P ereduaren PDFa sinatu behar du elektronikoki, bere sinadura elektronikoko ziurtagiria erabilita. BAK kodeak ez du onartzen aukera hori. Sinadura elektronikoko ziurtagiri gehienek, ordea, bai. BAKQ erabili ahal izateko Izenperen **txartel birtuala** deskargatu behar da.
 - d. Dokumentua ordezkariari bidali behar dio e-postaz.
 - e. Ordezkariak ordezkariaren ahalordedunak sinatutako PDFa txertatu behar du ordezkariaren aplikazioan, gainerako dokumentazioarekin batera.